

ZENBAT BURU
Ainhoa Andonegi

ERREPORTAJEA
Irukurutzetako
Parke Eolikoaren
proiektua

GEHIGAIUA
KilIBARRE

BARRREN

2000ko uztailearen 21a
VIII, urtea 330. zicia

É L O1B

ASTEKARIA



Irukurutzetako Parke Eolikoa:
Egingo ote dute?

"Ez da eremurik haizea sartzen ez denik" (Esaera Zaharra)

SANTA ANA JAI



PLAY-BACK lehiaketa



Sokamuturra
Sokamuturra



Kuadrila arteko bazkaria

MENDAROKO UDALA

ZORIONTSUAK



AINHOA ANDONEGI

ritsi da azkenengo eguna. Hiru hilabete pasa ostean, gaur gauean ezagutuko dugu irabazlea. Norbait oraindik konaturatu ez bada ere, Gran Hermano saioaz ari naiz. Ezbairik gabe, saio honek eman du zeresanik azken hilabeteotan: komunikabide guztietako gai nagusia izan da, eta lagun artean ere, behin baino gehiagotan entzun dira lehiaketa honi buruzko kontuak. Harrigarria badirudi ere, etxe horretako bizilagunak, koadrilako kide bihurtzen ziren sarri, eta ezagutzen ez zituena jokoz kanpo gelditzen zen.

Kritikaz beteriko programa izan da Gran Hermano, baina audientziak bere babesa eman dio uneoro. Posible al da hamar lagun eguneroko bizitzak horrenbesteko interesa piztea? Galdera honen erantzuna argia da.

Ikusleari eskatzen duena eman behar omen zaio, eta oraingoan, aho batez denek gauza bera eskatu dutela dirudi. Dударik gabe, gutxirekin konformatzen da publikoak. Konformismoan eta erosotasunean erori gara, eta ematen diguten guztia irensten dugu, zer ikusten ari garen pentsatu gabe. Ni neu izan naiz tranpa honetan erori den lehenengoa. Sekula ez dut telebista piztu lehiaketa hori ikusteko, baina

Amaitu da?

telebista pizten nuenean, Gran Hermano ematen bazuten, ikusi egiten nuen. Ez naiz harro sentitzen, baina ez naiz lotsatzen. Fenomeno sozial bihurtutako saio baten jarraitzailea naiz, besterik ez. Kuriositate moduan aipatzekoa da, Internet-en "sexu" hitzaren atzetik, `Gran Hermano` izan dela gehien bilatu den hitza.

Hiru hilabete oporretan eman ostean, gaur gauean hogeit hamar milioi trabaziko ditu lehiakide batek. Ez dago batere txarto, eta gainera, etxe horretatik ateratzen denean

nahi duen guztia egiteko aukera izango du. Kritikatzeko jarrera? Ez dut uste. Aukerak aprobetxatzen jakin behar da, eta gizarteak onartzen duen bitartean, gauzak berdin jarraituko du.

Zalantzarik gabe telezaborraren aroan gaude, eta morboan

"Zalantzarik gabe telezaborraren aroan gaude, eta morboan oinarritutako programak dira nagusi, Telebista kateek, askotan ikuslea inozotat hartzen dute, baina espektakuluaren munduan dena baimenduta dago"

oinarritutako programak dira nagusi. Telebista kateek, askotan ikuslea inozotat hartzen dute, baina espektakuluaren munduan dena baimenduta dago. Askoren zorionerako bukatu da Gran Hermano, baina bidaiak aurrera darrai. Konpetentziak autobusa jarri du martxan eta ehun egunetan estatu osoa zeharkatuko dute. Nik behintzat, espero dut nire etxean geltokirik ez topatzeal

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

u' 943 74 41 12

Publizitatea:

1. 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Eli Aizpuru
KAZETARIAK	I rati Agirreazaldegi, Asier Orbea
PuBuzirATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansota
AomirosmazioA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaltz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Lotola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Pen Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA AROURADUNA	Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop, E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1 .038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarka Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza
obra social*

4NDANOSAT

IS'GOIT1
GRUPO DANOBAT

Iritsi dira aporrak BARREnera

Urtero bezala, garai honetan aporrak hartuko ditugu aurten ere BARREn. Abuztuaren 22an San Bartolome jaietako zenbaki berezia kaleratuko dugu, eta abuztua amaitu baino lehen egunkari itxurako ale berezi bat jaietako argazkiekin. Oporretatik bueltan, irailaren San, BARREN berriz ere zuen buzoietan aurkituko duzue. Oporrak ondo pasatu eta bueltara arte!

Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu oporretako bidaian ateratzen dituzuen argazkiak erredakziora ekar ditzakezuela. Horrela, irailean argitaratu ahal izango ditugu. Mesedez, iraileko lehen egunetan ekarri argitaratzea nahi badituzue.

Okerrak zuzenduz:

Joan den asteko alean (329) kale inkestan oker bat izan genuen. Okerra zuzendu behar dugu. *Zaharrak-Berri* gehigarriko inkestako argazki bat kale inkestan agertu zen. Beraz, Emilio Rumayorren eta Cayetano Casqueroren erretratuak trukatu genituen. Bestalde, *Gogonauz* atalean Jose Elustondo Aizpiri Upai Goiko baserriko Josefa Etxanizekin ezkondu zela ipini genuen. Okerra zuzendu eta baserriaren izena Upaitza Goikoa deIa jakinarazten dizuegu

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik, Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **teldono zenbakia**.



BAI, FSAN? Pello Rubio

Gipuzkoako Nekazaritza Ekologiko Elkartearen Presidentea

Uztailaren 23an, Lasturren I. nekazaritza ekologikowen azoka egingo dute. Biolur (Gipuzkoako Nekazaritza Ekologiko Elkarteak), Izarraitz Bizirik taldeak eta DEBEMENek antolatuta dute eta Eusko Jaztrlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Debako Udala eta Euskal Herriko Federazioen Elkartearen Econonekazaritzak ere laguntza eina dute. Azoka ekologiko honi buruzer bait gehiago jakiteko **Pello Rubio, Biolur elkarteko Lehendakariarekin** hitz egin dugu.

- Zein motako azoka izango da Lasturkoa? -Batetik, produktu ekologikoekin lan egiten dugunak egongo gara bertan, ttehtenak gipuzkoarrak izango gara baina Iparraldetik, Nafarroatik, Arabatik eta Bizkaiatik ere etoniko dira. Denetarik egongo da, ogia, gazta, fruta, barazkiak, e.a. Bestetik, hailaran egiten diren produktuak egongo dira salgai. Honetaz aparte, aintzina baserriko lanak nola egin ohi ziren erakutsi nahi dugu: txondorra martxan dago, jadanik. Lasturko errota martxan ikusteko aukera ere izango da, sagardo tailerra, linoa eta artilea lantzeko tailerra, zeramika era-

kusketa eta beste hainbat hitxikeri ere ikusi ahal izango dira.

Egin al duzue noizbait horrelako azokarik? -Lastun'en ez, lehenengo aldia da baina Zerainen, bost urtetan jarraian egin dugu. Urtebete daramatza hau prestatzen, ez da oraingo gauza bat eta aurreko esperientziak ikusi eta gero ondo ateratzea espero dugu.

Zein da zuen helburu nagusia? -Nekazaritza ekologikoa erakustea, gauza beniak egin eta jendea Lastun'era joatea. Kaleko jendea basen'iarekin lotzea nahi dugu.

Zein ezberdintasun dago zuen

produktuen eta bestelakoen artean? -Nekazaritza ekologikoa Eusko Jaurlearitza kontrolatzen da. Ez dira produktu kirmikoak erabiltzen. Ez da nahikoa ekologikoak direla esatearekin soilik, lun'ak ondo analizatuta eta kontrolatuta dauzkagu.

- Zer topatuko du Lasturrera doan bisitariak? -Egun polit bat pasatzeko aukera. Produktu ekologikoak ikusi eta erosi, Lastur bisitatu eta frontoi berria ere egin dutenez, ikusi. Kaleko jendea baserriharrok zerbait esan eta erakutsi dezaiogegula adieraztea da gure nahia eta noski, produktuak erosi ditzatela.

SAN BARTOLOME JAIETAN ZATOZ LERUN JATEMERA

pudairde,, der,m



Lerun, 6 • Tel. 943 74 31 96

Deitu!

TXIKI eguneko betiko menua

Entsalada mistoa

Paella

Eskalopea edo oilaskoa

Postrea

Ardoa

1.800 Plai

MARAKATETIK IRIMURUTZETARA, B1 TARTEKCO iGrZ OTE !71E?

*Energia eolikoa edo haizearen indarra aprobetxatuz elektrika-indarra ateratzea ahoz aho dabilen gaia da azkenaldian. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak egin duen Parke Eoliko-
ei buruzko Lurralde Plan Sektorialean Irukurutzetako mendilerroan parke eolikoa jartzeko aukera posibleen artean agertzen dela jakinik. Momentuz asmo horren aurkako ahotsak besterik ez dira entzun Elgoibarren, bai Udala, eta bai mendizaleak eta ekologistak Karakate eta Irukurutzeta bitartean parke eoliko bat eraikitzearen aurka baitaude. Erreportaje honetan energia eolikoak sortarazten duen eztabaida jaso nahi izan dugu.*

ndustria, Merkataritza eta Turismo Sailak 1999. urteko abenduan prestatu zuen Parke Eoliko-
ei buruzko Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapena. Plan sektoriala onartzeko dago oraindik, baina Gasteizko Legebiltzarrean eta udaletan dagoeneko aurkeztu dute aurrerapen hau. Parke eolikoena aspalditik datorren kontua da. Eusko Jaurlaritzaren helburua EAEn kontsumitzen den elektrizitatearen %3-a parke eolikoaren bitartez sortzea da 2.005. urterako. Jaurlaritzak bidalitako teknikariak 1986. urtean hasi ziren Euskal Autonomi Erkidegoko azterketa eolikoa egiten. Lehenik haize neurketak egin zituzten (Elektrizitatea sortzeko 6 metro segunduko abiadura izan behar du haizeak gutxienez). Ondoren parke eolikoak eraikitzeko 29 kokaleku egoki aurreikusitako ziren.

18 kokaleku posibleen artean dago Karakateko parke eolikoa. Horietatik 4 edo 5 aukeratuko dituzte azkenean

BAIDIRZARIK EGOKIENAI

Hauen balorazio teknikoak egin ostean, beharrezko baldintzak betetzen zituzten kokalekuak bereiztu zituzten teknikoek, 13 kokaleku hain zuzen ere. Esan bezala, Energia Eolikoaren Plan Sektorialaren arabera Irukurutzetako parkeak baldintzak betetzen ditu, beste batzuren artean. Horrek ez du esan nahi Karakatek Irukurutzetara bitartean parke eoliko bat derrigorrez eraikiko denik, 13 kokaleku posible horietatik baldintza onenak dituzten dituzten 4 edo 5 parke eoliko aukeratu-ko baitituzte azkenean, Errentagarritasun handiena eta ingurugiroan eraginik txikiena izatea dira bete beharreko baldintzak, hau da, arazo orografiko lanirik ez izatea eta ingurugiroa ahalik eta gutxien kaltetzea. Zonaldearentzat izan ditzakeen abantaila sozioekonomikoak ere kontutan hartuko dira.

UDALA PARKE EOLIKOAREN AURKA

Elgoibarko Udala ez dago ados Irukurutzetako parke eoliko bat eraikitzeko asmoarekin, eta hala adierazi dio Eusko Jaurlaritzari ere. Honako hau Gillermo Garate alkateak Txeber Lezamiz, Industria Saileko Energia Zuzendariari bidalitako eskutitzaren pasarte bat da, "Elgoibarko Alkate Lehendakari gisa jakinarazi behar dizut Eusko Jaurlaritzak berak babestutako monumentu megalitiko multzoa gordetzen duen gailurrean parke eoliko hori kokatzearen aurka gure gaitzeppen sutsuena, dakartzan ingurugiroaren, paisaiaren, faunaren eta ikuspen deusezpen konpon

Elgoibarko Udalak Karakate Irukurutzetako ingurunea babestutako biotopo izendatzea eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari

ezeinagaitik. Jakinarazten dizut, pentsaera hau Udal honetako talde politiko guztiek eta Elgoibarko herriak babesten dutela...". Udalak 'Ekos', Ingurugiro ikerketak egiten dituen enpresa, kontratatu zuen Irukurutzetako parke eoliko bat eraikitzeak eragin ditzakeen kalteak aztertzeko. Ikerketa egin ostean, Udalak 'Ekos' enpresak atera dituen ondorioak erabiliko ditu proiektuari ezezkoa emateko. Are gehiago, Elgoibarko Udalak Karakate-Irukurutzetako ingurunea babestutako biotopo izendatzea eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari, aurrez Bergarako eta Sorluzeko Udalek egin duten moduan.

1.111 Efferionkorra

Ingurugiro azterketari dagokionez, Karakate-Irukurutzetako ingurunearen baloreak azpimarratu nahi izan ditu "Ekos" enpresaren



1998. urteko Karakaterako igoeran parte hartu zuten korrikalariak argi laga zuten beraien iritzia.

PARKE EOLIKOA

ikerketak. Asmo horretan ezaugarri geologikoak, natur baloreak, arkeologia elementuak eta aerosorgailuek paisaiarengan izango duten eragina izan ditu aztergai ikerketak. Ezaugarri geologikoei dagokienez, Karakatetik Irukurutzetara bitarteko lurak ezegonkorak direla ondorioztatzen du ikerketak. Hori dela-eta, parke eolika egiteko lanetan lubiziak eta lur higadurak gertatuko direla zihurtzat jotzen dute 'Ekos'eko arduradunek.

FAUBIA eta IANDARETZA

Parke eolikoaren aurka azaltzeko arrazoi nagusienetakoak landaretzak eta faunak jasanpo dituzten kalteak dira. Ikerketak Karakate iparraldean dauden pagadiak azpimarratzen ditu, batez ere. Bestalde hegaziak izan daitezke animaliarik kaltetuenak, haize eirotek migrazioan dauden hegaziak hil ditzakete-eta. Hegaztien kabiak egiteko lekuak eta ohiturek ere aldaketak jasan ditzakete.

ERAGIN BISUAIA

Irukurutzetako parke eolika eraikiko babiliz eragin bisuala izugarria izango litzatekeela baieztatzen du ikerketak. Gainera, bailara osoan izango luke eragina. Karakatetik Irukurutzetara bitartean dauden gailurrek duten ga-

Ingurugiroaren azterketa egin ondoren, hegaztien kabiak egiteko lekuak eta ohiturek ere aldaketak izan ditzatekela baieztatuko da

raiera eta zuhaitz urritasuna dela-eta, eragin bisuala bikoiztu egiten da eta oso hurruntetik ikusiko lirateke haize errota.

BERGIA BERRIZTAGARRIEN GARAIA

Gizarte garatuetan energiaren beharra funtsezkoa eta zalantza ezina da. Elgoibar moduko herri industrializatuetan horrelakoak aipatzea ere soberan dago. Dena dela, energiaren ekoizpena da arazorik handiena eta batez ere, produkzio horren ondorioz sortzen diren hondakinak eta kutsadura. Gizartean kontzientzia ekologikoa handitu egin da, eta herritarrek kutsadurak ingurugiroan dituen ondorioez jabetu dira. Energia nuklearra da adibiderik garbiena. Hori dela-eta, energia berriztagarrien erabilera bultzatu nahi dute gobernuek. Oraingoz, ordea, beste energi iturriekin baino ekoizpen txikiagoa eskuratu daitezke haize eta eguzki in-darrez lortutako energi iturriekin, baina aurrerapen tekno-

- Parkeak 4.700 metroko luzera izango luke I(arakate eta Irukurutzeta bitartean. Aurreikusi diren 13 parke edoetatik txikienetakoa izango litzateke, 20 kilometro dituztenak ere badaude-eta.

- 4 udalerritako lurak hartuko lfluzke: Elgoibar, Soraluze, Bergara eta Azkoltia.

- Guztira 37 haize errota jarriko brateke.

HaUe errota bakoitzak: 60 metroko altuera (15 solairuko etxebiritza baten parekoa) eta 50 tonatik gorako pisua du. Hegalek 20-25 metroko luzera tzango lukete.

Ekoiztuko duen energia kopurua: Lurralde Plan Sektorialaren arabera, 56,1 GWh. (Elgeako parkeak Gasteizek behar duen elektrizitatearen erdia eman dezakeela kalkufatzen da)

- Haize errotek aterako duten zarata: 40 metrotara 53 dezibelio (tailer edo jatetxe batean entzuten dena), eta 400 metrotara 42 dezibelio.

Aerogeneradoreek ez dute hondakinik sortzen.


Momentuz EAE-n dagoen parke eoliko bakarra Elgeakoa da, Araba eta Gipuzkoako mugan dago (Eskoriatza, Ofiati eta Arelxabaletako lurretan). Hego Euskal Herrian, berriz, 12 parke eoliko daude Eigeakoaz gain, guztiak ere Nafarroan.

logikoei esker gauzak asko hobetu dira eta etorkizunera begira aukerak zabal daitezke. Dena dela, ezin dugu ahantz. i gero eta energia gehiago kontsumitzen dugula. Energia eolikoak abantailak eta desabantailak ditu. Abantailai dago kienez, ez du hondakinik sortzen, eta atmosferara gasik igortzen ez duenez, ez du negutegi efektua areagotzen. Bestalde, 3 desabantaila nagusi daude: paisaiaren eraldaketa, zaratak eta hegaztiengan sor ditzakeen kalteak.



Elgoibarko Udal Korporazioa Parke Eolika egitearen aurka azaldu da.

"Herriko talde eta elkarte guztixak, Udala barne, ados jarri dian gsuza baitarrenetakoa lango da"



Parke eolikoa egiteak mendiz, alengan eragin zuzena duenez, Morkaiko Mendizale Elkartearen frizia jakitea egokia iruditu zaigu. Hori dela eta Elkarteko kideek hitz egin dugu.

Zer iritzi du Morkaiko Mendizale Elkartek Irukurtzetan eraiki daitekeen parke eolikoari buruz?

Dudaripe parke eolikua eixian kontra gaoz.

Zein dira aurka egoteko dituzuen arrazoi nagusiak?

Mendizale talde bat geran einian. Inikunitzetatik Kantkatera bitxartian dauan ingurune ekologikuak eukiko dahan kaltia izugarrixa beixantzen jaku. Hasteko mendikate guztixan 37 aerogeneradore ikustiak sortzen daban inpakto bisuala demasekua da. Arlo horretan Elgoibar da kaltetuena ingurtuko henixetatik, edozein tokitxatik ikusiko dia eta haize effotak. Bestalde, oin arte ein dian ingurtigiro ikerketek eta heste parke eolikueta-ko esperientziak argi erakutsi dabe landaretza eta fauniantzat, hatez ere hegatzixentzat kaltegarriak izango diala haize errotak. Bukatzeko, hahestutako monumento megalitikuak ere aniskuan janiko liake.

Zer iritzi duzue energia eolikoari buruz?

Energia eolikua bihar bezela eta bere lekuan erahiliz gero, energia itxuni egokixa beixantzen jaku. beste energia itxurriak baino ekologikua, Dana dala tallo bat somatzen dou, energia berriztagarrixa izan arren ez baitator ezer ordezkatzera, hau da, ez ditxu beste energia itxurri kutsakorrauak ordezkaten. Oingo beste aukera bat baino ez da.

Irukurtzetan parke eoliko bat eraikitzeo aukera asko daudela uste al duzu?

Eusko Jaurlaritzak 13 leku aukerau ditxu parke eolikuak jartzeko. Leku danak bi faktoreren arabera aukeratu dia, hau da. ingurugiroangan eukiko daban eragina eta errentagarritxasunan arabera. Faktore hauen arabera Irukunitzetakua 12. postuan dauala entzun dou. Izan ere, leku asko daude Irth. kurtzetakuan baino haize errota gehixao ipini leikezenak.

Parke eolikoaren aurkako ekintzarik egitea pentsatu al duzue?

Oindik ezer segururik ez dauanez ez daukau ezer pentsauta, baina zeozer sortzen bada Irukurtzetako ingurunia babesteko helburua dakan edozein ekintzari gure babesa emateko prest gaoz. Momentuz, parke eolikuon kontrako kamiseta batzuk atera ditxugu. Bestalde, kuriosua ematen badau ere, hau izango da herriko elkarte eta talde guztixak, Udala barne, gauza batian ados jarri dian une hakarrenetakua. Guri ailegau jakuzen iritzi guztixak parke eolikuon kontrakuak izan dia. Hori ere zeozegaitxik izango da.



Morkaiko Mendizale Elkarteko Zuzendaritza. Artxiboko Irudia



*Udako oporrei begira,
Netto merkatalguneko prentsa eta aldizkari dendan
%10eko **BEHERAPEN BEREZIA.**
Uztallaren 24tik 29ra.*

Lerun, b • Tel. 943 74 44 23

Netto

Ondo ibili!



OsaL unean adituak

GAIA:

URGENTZIA TXIKIEN AURREAN ZER EGIN

Oporretan sarritan gertatu ohi dira ezuste-koak, eta umentzia txiki hauen aurrean zer egin jakiteko argibide batzuk emango dizkizuegu:

Kalanbreak: Lasaitzeko modu bat, ezpainaren goiko aldeari 30 segunduz arximurka egitea da. Kontrako giharra uzurtzeak ere mina arindu ohi du. Ur asko edateak kalanbreak ebitatzen ditu.

Ebakiak: Odol-jarioa gelditzeko zapi garbi batekin presioa egin. Ondoren, izotza toaila batean bildu eta zauri gainean jarn. Gero zauria garbitu eta bakterien aurkako krema eman ostean,

Beherakoa: 24 ordu suero fisiologikoa, ura, salda eta sagar edo mahats zukuak edanez pasatu.

Bero kolpea: Denbora luzez eguzkitan egon ostean hizketarako edo oinez ibiltzeko zailtasunak izatea bero kolpe baten sintornak dira. Anbulantziaren zai gauden bitartean gaixoa toaila beroekin edo ura botaz freskatuko dugu.

Kolpeak: Mindutako lekua oliba olioiz igurtziz gero, beltzuneak ateratzea zailagoa izango da. Bestalde, izotza jartzeak ere on egin ohi du.

Sugegorriaren haginkada: Ez da korrika ihes egin behar ezta pozoina zurrupatu behar ere. Onena kaltetua urgentzietara eramatea da. Baina horrelako kasuak gure inguruan gutxitan gertatzen dira.

Zakurraren haginkada: Lehendabizi haginkada estutu odol-jarioa gelditzeko eta zauria jaboi-urarekin garbitu. Ondoren urgentzietan emango dizkiote txertoak behar izanez gero.

Erle ziztada: Azala kreditu txartel batekin hazka egin. Ondoren, aspinna busti bat igurtzi ziztada egindako lekuan.

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masajea, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Medikuntza naturala, modologia, masajea, reiki, yoga Klaseak egunero)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optometria, kontaktologia, tonometria, campimetria, audiometria)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Jose Artetxe, 10 • Tel: **943 15 75 74** (Azpeitia)

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Francisco, 12 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ral

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeke 943 74 41 12ra

• Udaltzaingorako lan-pottsia osatzeko probak

Udaltzaingoan lan-pottsia osatzeko probak egingo dituzte aurki, eta horretarako eskabideak aurkezteko azken eguna uztailearen 26a, asteazkena, dela jakinarazi nahi diete herritarrei. Probetara aurkezteko baldintzak honako hauek dira: 18 urtetik gorakoa izatea, oinarrizko ikasketak eginak edukitzea, B-1 gidabaimenaren jabe izatea, euskarako 2. hizkuntza eskaltizunaren pareko ezagutza, gaitasun edo akats fisikorik ez izatea eta lan honetan aritzea galerazten duen zigor-espediterik ez izatea.

• San Lorentzoko aisialdi gunea prest

Jaietan aparkaleku moduan erabili ohi zen zelaian aisialdi gunea ipini dute. Mahaiak, zuhaitzak eta erretegiak jarri dituzte herritarrek beraien denbora libreaz paisaje naturalean goza dezaten. Gainera, Udaltetik adierazi digutenez, aurki komunak ere jarri nahi dituzte Sallobente auzoan. Frontoia- ren atzeko partean ipiniko dira bi komun, beraz, orain arte faltan zeuzkan zerbitzuek osatuko dira Elgoibarko baserri auzo honetan.

Udaletxeko langileek Konbenilea betetzeke eskatu zioten alkateari piencan

Langileen arabera baje eta ordu estren arazoak konpondu behar dira

Joa den asteazkenean, hilaren 19an, ezohiko plenoa izan zen udaletxean. Bertan besteak beste San Lazaro Egoitzako aurrekontuen aldaketa, Kirol Patronatuko eta Zaharren egoitzako iazko kontu orokorren onarpena Arriagak arau subsidiarioen aldaketa izan ziren landutako gaiak. Bestalde, Karakate babestutako biotopo izendatzeko eskaria alderdi guztiek onartu zuten.

Protesta Pleno Aretoan

ELA eta CC.00. sindikatuek sinatutako pankartan "Guillermo bete konbenioa" zegoen idatzita. Ordezkarik Sindikalak esan digunez, EUDEL (Udaletxeen ordezkaritzak) eta Sindikatuek funtzionario eta administrazioko langileentzat konbenio bat dute sinatuta baina azken hauen arabera, konbenio hau ez da inola ere betetzen. Baje kontua eta ordu estren arazoak dira batak bat konpondu beharrekoak Elgoibarren eta Alkateari konbenioan sinatutakoa besterik ez diotela eskatzen argi utzi nahi izan dute, euren ustetan inola ere ez duelalco



Udaletxeko 57 langileek bat egin dute konbenioaren aldeko protesta ekintzarekin.

betetzen. Udaleko langileak **60** dira eta Ordezkarik Sindikalaren ahotan "guztiak agertu ez badira ere, hiru izan ezik, denok gaude ados protesta horrekin".

EAJ-EA-EH paktoa bere borretan

Azken egunotan komunikabideetan Elgoibarren, beste herri batzuetan bezala EAJ eta EHren arteko akordioa eteteko asmoa zegoela azaldu da. Erredakzioa itxi aurretik Udaltetik adierazi digutenez gure herrian hitzannen honek bere honetan jarrituko du.

Olasoko eta Altzolako hilerrietako panteoien titularrek beraien jabetza egiaztatu behar dute

Jaberik gabeko edo abandonatutako panteoia zozketatu egingo dira

Elgoibarko Udalak Olasoko eta Altzolako panteoien errolda egingo du, jaberik gabekoak zein diren jakiteko. Errolda egin ahal izateko, jabeek titularrak direla egiaztatu behar dute, horretarako, Ongizate Sailera joanez. Ondoren, abandonatutako panteoien zozketa publikoa egingo dute interesatuek panteoia eskuratu ahal izateko. Izan ere, badira hainbat panteoi aspaldian erabili ez direnak, beraz, Udalak abandonatuta daudela uste du.

Olasoko eta Altzolako hilerrietako arauen



Panteoien jabeek agiri bat aurkeztu edo familiakoek erabiltzen dutela egiaztatu behar dute.

arabera, abandonatutako panteoia zozketatu egin behar dira, interesatuek eskuratu ahal izateko. Ondorioz, jabetza aldaketako proiektua jarri du martxan Udalak. Proiektua aurrera ateratzeko hilerri hauetan panteoien bat dutenek Ongizate Sailera jo behar dute panteoien errolda eguneratzeko. Panteoia- ren jabeak direla adierazten duen agiriren bat aurkezte edo familiakoek erabiltzen dutela egiaztatzea da kontua.

Uztailean eta Abuztuan errolda eguneratu ostean, jaberik gabeko panteoia enkantera aterako dira, nahi duenak eskuratzeko.

Euria ez zen ortopo izan aire libreko rtne emanaldak basteko

Ostiralean, hilaren 14an, aire libreko zine emanaldiak hasi ziren Elgoibarren. Gauean euri zaparrada izugarria bazen ere "Soiid con Africa" tilmea bota zuten. Kultura Saitetik esan digutenez, "euria egiten duenerako prestatuta dauzkagu aparatuak eta guretzat erronka bat izan zen. Jende gutxi joan arren arkupeetatik ikusi zuten estreinako pelikula". Bestalde, larunbateko emanaldia igandera atzeratu eta 600 lagun inguru izan ziren Plaza Handian "Toy story 2" pelikula ikusten. Datorren asteburu luzerako hiru filme daude iragarrita: "Murcielagos"; "Jone igo zerura" eta "Tarzan".



Men atentatuen aurkako kontzentrazio isila egin zen Plaza Handian

Asteburtian Malagan eta Sorian izandako atentatuen aurka protestatzeko kontzentrazio isila egin zen joan den astelehenean eguerdiko 12:00etan Plazan. Guztira, 60 lagun inguru elkartu ziren eta 15 tminutuz plazan egon ostean txalo zaparradarekin amaitu zen kale agerraldia. Gogoratu behar da, larunbatean Malagako Udaleko Jose Maria Martin PPko zinegotzia atentatuan hilzutela eta asteburuan bertan Soriako Agreda herriko Goardia Zibilaren koartelari eraso egin ziotela bomba auto batekin.



• Sargoateko erromeria uztailaren 25ean, asteartean, izango da

Datorren uztailaren 25ean, asteartea, Sargoateko erromeria egingo da San Lorentzo bailarako izen bereko lekuan. Elgoibarko Izarrak, Morkaiko Mendizale Elkarteak, Sallobenteko Jai Batzordeak, DEBEMENek eta Elgoibarko Udalak antolatu dute erromeria. Goizeko 11:30ean meza izango da eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko zaizkie bertaratutakoei. Eguerdiko 12:30ean Meabe, Ziarda eta Narbaiza bertsolariak arituko dira bertsotan eta jarraian, 14:00ak ingurura arte trikitilariak alaituko dute giroa. Azken urteotan ohitura bihurtu den erromeria honi giro alaiari amaiera emango zaio datorren urtera arte.



Morauren kontzertuarekin amaituko dira Toletxen uztaileko ekitaldiak

Uztailean ekitaldi asko izan da Toletxe tabernan. Musika izan da nagusi, baina era guztietako doinuak entzun ahal izan dira udako hilabeteetan. Iparraldeko kantuak Belardi taldearen eskutik, Fandbaltzen kantu herrikoiak, Pepi eta Gabiren bluesa eta Baltzola anaien trikiti doinuak Arigera jaixan. Bestalde, diapositiba emanaldia ere izan zen Arantza Opakuaren eskutik. Uztaileko ekitaldietan azkena Morauren kontzertua izango da datorren ostiralean, uztailaren 28an. Kantautore euskaldunak bere azken diskoko kantuak abestuko ditu, besteak beste gaueko 23:00etan hasiko den saioan.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

(ZIKLOMOTORREKO L1ZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**

€1Z IZENA EMATEAN 9Yoi OEKO BEHERAPENA

*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.
Zatoz informazio eske!*

LARRAÑAGA
U O E S K O L A
-rte: 943 74 10 11

SARGOATEKO ERROMERIA

uztailak 25, martitzena

EGITASMOA

11:30

Meza

12:00

Salda eta txorizoa

12:30

Bertsolariak;

Meabe, Ziarda eta Narbaiza,

eta Trikitilariak

14:00

Erromeriaren

amaiera

A1111.1111%.-

ANTOLATZAILEAK: SALLOBENTEKO Jai Batzardea, MORKAIKO, ELGOIBARKO 1ZARRA, DEBEMEN eta ELGOIBARKO UDALA

AgOrTilkil



911

oitik hasita. Ezkerretik eskumara:

Lehen ilara: **Juanjo Eizagirre, J. Antonio Eizagirre, Jose Izurrategi, J. Antonio Zabaleta, J.L Urbieta, Juan Ulazia, J.M Garate, J.M Urbieta** eta **Andres Lazarobaster**.

Erdikoan: **M. Nieves Atxa, Mar-**

garita Lazkano, M. Isabel Landa, M. Karmen Zulaika, Begoria Sanz, M. Tere Garate eta **M. Jesus Urbieta**.

Hirugarren ilaran: **Agustin Lazarobaster, Agustin Mari Berasaluze, M. Angeles Zabaleta** eta **Maite de Diego**.

K

Maria Angeles



R"

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 943 75 50 86



P
U
B

ARRATS

Zelaikoa plaza,2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

GAZTEAK GIIG01

Mendaro bizitza berri baten jabe da azken bolada honetan. Gazteak beraien sormenez antolatzen dituzten ekinzenak dira horren arrazoia. Gazteen testigantzaz eta egin izan diren ekintzen gozantenez hornitu nahi izan dugu erreportai hau.

ANDONI EGAÑA

Mendaroko Plataforma Aktiboa

Plataforma hau EGIN itxi zutenean sortu zen, egunkarilaren liat dirua lortu behar zela-eta, gazte talde bat elkartu eta Mendaroko fepian, taloak egin genituen. Jendea gustura eta lan egiteko prest zegoela ikusita, beste ekintza barnk egin ziren. Nolabait deitura bat eman hehar taldeari eta izen hori aukeratu zen.



Plataformak jende ezhertlina ezagutu eta tratatu-ko aukera emateaz gain, herriapenttat zerbait egiteko hidea eskaini dit. Azken urteetan egon den pasibatetik irtelzeke arrazolak eman dizkit, erraza haita esatea Mendaron ezer ez dagoela eta hide hatez, ezer ez egitea.

Azkenik, esan nahi nuke taldea denontzat irekla dagoela eta nopaitek edozer egin edo planteatzeko gogoia izanez gero, lasai guregana etortzeko eta besoak zahalik hartuko dugula.

Plataforma Aktiboa

EGIN itxtearen aurkako dirulaguntza lortzearen Gabonetako "Kontsezio Azoka'n ipinitako txosnarekin bildu zen estrainekoz, gero Plataforma Aktiboa izango zena sortuko zuen gazte-jendea. Herri eta nazio nahiz nazioarteko arazoekin sentsibilizaturik, makina bat dira orduz geroztik antolatutako ekintzak.

Hasierako txosna hura ohiturazko bihurtu da jadanik. `Kontsezio feria'n ez dira falta izan azkenaldian talotartekoak. Taloi ikastaroetan, herriko adinduen jakituriaz pasatako orduetan bultzatu nahi izan du Plataformak edozein mendarotrek txosnan parte hartzea.



Auneko neguan arrakastatsua izan zen baita ere Gaztaina-erre Eguna; Baba-jan lehiaketak bixitutako goizak ekarri zuen bertsolarien doinu eta bromezko bazkaria.

Gazte askok hartu zuen parte baita ere `Garbiketa Egunean'. Kilimoi arana, Azpilgoeta, Mendarozabalgo Poligono ingurua eta Deba Ibaia ere pasa zituz-



Mendaroko TAX1A

Kontxi Urain

tik 607 57 57 28

ARBOLETA Jatetxea

Ondo pasa jaiak!

Jaietan bazkaldu edo afaltzeko leku aproposa

ten. Argazkian ikus daitekeen bezala, Herriko Enparantzan bildu zen zaborra ez zen nolana hikoia izan. `In Leike'eta Plataforma Aktiboak berak bultzatu zuten eguna.

Plataforma Aktiboak gazteek gaur egun daukaten sentsibilizazioaren inguruan aldarrikapenak zuzendu ditu: Euskal Presoen herriaratzearen inguruan eta Gaztetxe baten beharren alde borrokatuz. Jasotako diruak senideei, `Gara'ren sorrerari edo Venezuelako katas-trofean laguntzeko eskaini zen batetik, eta ekintzen antolaketetarako izan zen bestetik. Beste hainbat jardue-ra ere konta daitezke: Emakumeen Eguneko filme emanaldia, sexologia ikastaroak...

sortzen lagundu dute, Zuhaitz Eguna, lehengo urteko Euskal Hilabetearen antolaketa (Asier Serrano, Mikel Markez eta Pako Aristi, Anje Duhalde...).

Jaietarako ere gogoz

Aurtengo fut-bi to txapelketa- ren antolaketaren kargua ere `In leike' hartu du. Orain arte koadri- laren batek hartu izan du ardura eta kili-kolo zegoen tradiziozko txapelketa hau be- neskuratze aldera, garrantzitsua izan da talde batek ho- nen ardura hartu izana. Zazpi taldek eman dute izena. Finala jaietan, Gazteen Egunean, arratsaldeko 17:00etan jokatu da.

Hala ere, gazteen ekintzetatik platafonnaren txosna izango da berezitasunetako bat. Lehenengo hiru egune- tan irekiko dute eta kontzertuak, jokuak eta bestelako ideiak jarriko dituzte martxan. Egin duten Iarta ikustea besterik ez dago beraien ilusioaz jabetzeko. 80 gaztek eman dute izena barran lan egiteko, Mendaroko gazteen gehiengoak jarduera autonomoko Gaztetxe baten beharra inoiz baino gehiago nabarmenduz.



In leike'

`In leike' ai- sialdira mugatu da. Mendaroko herriaren bizitasun faltaz eta jarduera eta ekitaldi urritasunaz oharturik, lan egiteko gogoz aurkitzen den jen- de batek mendarot- tarrek entretenigarri iritzi ditzaketen ikuskizun eta ekintzak dituzte helburu. Horrela zerbait `In leike'la dute filosofia: bertso eskola



futinto trapelketa ere antolatu da 'In leike'k.

Horrela zerbait `In leike'la dute filosofia: bertso eskola

Forsiffirosani alfaki•ra ntihna

@ZTAILAK 21, ostirala

10:00etan
'ULER 600' eta 'OZEL';
taldeen kontzertua.
Azken honetan Xabi
maisua da kantaria.

Bazkaria

Txosnetan lan egin
duten guztientzat,
trikitilari eta guzti.

CUZTAILAK 22, larunhata

GARAGARDO EGUNA

16:30etan

Garagardoa eta jolasak.

20:00etan

'GAUA' taldearen poesia
eta musika emanaldia.

Goizeko 6:00etan

Txokolatada

Iiuntzeko 8:00etan

Bera Bidasoako

'PETTI' kan tautore a.

CUZTAILAK 24, astelehena



INDUSTRIAS
131.S.A.
MAKIN K NEURRIRA

Manipulazioa eta Muntaia - NIakina Berezia Danostia-Bilbo Errep. 53. km.
Bruffidorak - Kontrol dimentsionala 20870 MENDARO
Tel: 943 75 50 00
Faxa: 943 75 51 62

Jai alaiak igaro itzazue:

LANDA

ERRETEGIA

BEREZITASUNAK

1Legatza champagne erara
IGanba eta intxaurre pudding-a
Etxeko postreak

Penel4 4iti4 ftadetta

Garagarza, 32 • MENDARO 943 75 60 28

SANTA ANA

i:Sittiblitu

17:00etan: Platerari tiro txapelketa. Futbito Txapelketako finalak, leikek' antolatuta.

19:00etan: SALBEA Garagartzako Elizan eta Santa Anari herriko zapia jartzea. Ondoren, KALEJIRA erraldoi eta bu-ruhandiekin, BIZI POZA txarangak alaituta.

23:30etan DANTZALDIA LISKER taldearekin.

UNTEEN EGUNA

Goizean: KALEJIKA txistulariekin

12:00etan: Umeen tanborrada.

15:00etan: Umeen parkea eta jolasak frontoian.

23:00etan: SU ARTIFIZIALAK,

23:30etan: Dantzaldia EGAN taldearekin.

Atsedendian, PLAY-BACK lehiaketa.

TZTAILAK 24. astelehena

KOADRILEN EGUNA

Goizeko 11:30etan: POTEIO herrikoia trikitilariekin

13:00etan: Paella lehiaketaren hasiera.

14:30etan: Koadrilen arteko paella jana frontoian.

Ondoren, jaia frontoian bertsolari eta trikitilariekin.

18:30etan: SOKAMUTURRA Garagartzan.

23:30etan: Kontzertua ERASO taldearekin. Plazan.

Ondoren, DISKOTEKA goizaldera arte.

6:30etatik Setara: TXOKOLATADA

ITZTAILAK asteartea

"SANTIXAO EGUNA"

Goizean, ICALEBRA

11:30etan: Meza

Ondoren, Zurnaiako San Pedro Abesbatzaren emanaldia, Garagartzako elizan.

17:30etan: Pilota partiduak.Finalak:

Kadeteetan: Ulazia-Agirrebefia, Larrarlaga- Loiola, Afizio- natuetan: Ubera II-Albizuri, Eguzkitza-Txikito X

Ondoren, SOKAMUTURRA Garagartzan.

22:30etan: Tanborrada, TIRRI-TARRA fanfarrearekin.

Ondoren, TIRRI-TARRAren emanaldia.

Goizeko 2etan: DISKOTEKA goizaldera arte.

L¹ZTAILAK. 26. asteazkena

SANTA ANA EGUNA

10:30etan: PROZESIOA

11:00etan: Meza, Santa Anako ermitan.

Ondoren, Erromeria Santa Anako zelaian, Lizaso eta Egaña bertsolariekin eta Ostolaza eta Andonegi trikifflariekin.

14:00etan: Bazkaria

18:00etan: Herri kirdak frontoian.

22:30etan Kalejira BIZI-POZA txarangarekin, jaiei amaiera emanez.

Presoen aldeko Martxa pasatu zen hilaren 12an Mendarotik

Mendaroko kaleak zeharkatu zituen hilaren 12an presoen eskubideen alde Senideak-ek antolatutako martxak. Igarozten ari diren egoera berriro ere gogoratuz, Jokin eta gainontzekoak oroitu ziren deialdian. Testigua, kamioiarekin iritsi zen zeldako giltza, injustiziatik askatuko dituenaren sinboloa eta auresku herrikoia uztartu ziren kartzelakoei dei egiteko.



Kilimoiairen bilera lehengo zapatuan

Fernando Loiolak lehengo zapatu goizean Aizpen izan zuen bileran bere konfidantza osoa agertu zien plantilako jokalariei. Lehengo urtean hain lan ona egin zutenen artean ia denek jarraituko omen dute. Gurutz kapitainarena izango da bajarik nabarmenena. Badira talde handiagoen tentaldiari uko egin eta 'Ospas Gainera' igotzen segitzearen aldeko apostu egiteari jarraitzea erabaki dutenak, Ezenarro adibidez, Mutrikuri ezetza eman baitio.

Irailetik aurrera KiliBARREN egiteko kazetaria behar da

Irailetik aurrera, KiliBARREN egiteko kazetaria behar da. Baldintza bakarra Mendarokoa edo Mendaro ondo ezagutzea da. Interesatuak bidali lehenbailehen zuen kurrikulumak Mendaroko Udalera (Joseba Etxebenia) edo Elgoibarko IzartTa KuItur Elkartera (Ubitarte, 4 behea • Tel. 943 74 16 26).

ler iruditzen zalzu Karakaten parke eolikoa egitea?



MANUEL RAMOS

44 urte, torneroa

Oso gaizki. Elgoibarren mendira joateko aukeretako bat da Karakate. Ni astean bi aldiz joaten naiz, eta parke eolikoa janiz gero ez nintzateke gustura ibiliko.



INMACULADA AZKUE

42 urte, okina

Ez dakit energia lortzeko sistematik egokiena zein den, baina parke eolikoa jartzeko zuhaitzak bota eta naturari kalte egin behar badiote, ez nago ados.



GLORIA ARRIOLA

64 urte, etxeoandrea

Naturala baldin bada, ondo beintxantzen jata, bestela beti petroleuan menpian eon bihar dou. Gainera, Karakatera ez naiz juten eta bistarako ez da halako zatar gelditzen.



BORI ETXARRI

53 urte, etxeoandrea

Gaizki. Energia lortzeko modu egokia eta ekonomikoa izango da, baina mendia erabat apurtuko luke, ez estetikoki bakarrik baita ekologikoki ere.



XABIER URIGUEN

59 urte, torneroa

Ondo ez. Energia eolikuan kontra ez naio, baina hemen ipintzia ez nuke nahi. Holako paraje edarra, dana izun'auko lukete, eta bistarako ere ez litzake politxa izango.



EGOITZ GURRUTXAGA

18 urte, ikaslea

Energia eolikuan alde banoa, baina ent honetara eitxian alde ez. Jende asko juten da pasiatzera hara eta Karakate ez jata iruditzen halako gauza baterako toki egokixa.



1 etik ● ra ITXITA
**SAN'IARTOLUETARAKO
PILAK KARGATZEN**

Basarte kalea, 4
Tel./Faxa: 943 74 34 26



San Roke, 30 behea, 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZATZEAZ - PINTAKETA

nGunTZIINE
ilecTaindegia

Abuztuaren 7tik 17ra itxita, Gainontzeko equnetan irekita astetehean, astearte eta asteazken arratsaldeetan ezik,

Soñte Rne. 18 • Tel: 943 74 18 64

Elgoibartik

Iruñeara



**Olga
Abirtzeino**

tan bizitzeko arrazoiak eta erraztasunak ere banituen, aita Iruñekoa baita". Gainera, bi ahizpa dira eta biak ere Iruñean daude gaur egun. Enpresaritzatik ikasketak arnaitu zituen eta orain Nafarroako Foru Aldundian egiten du lan. "Administrari bezala egiten dut lan baina nire ikasketekin ere badu zerikusirik, haziendan bainago" - esan digu Olgak.

Aspaldian ez omen da Olga Elgoibarrera etorri. Hori bai, Iruñean elgoibartar asko dago eta herriarekin erlazio hori ez duela galdu esan digu. Ea berriro Elgoibarrera bizitzera etorriko al litzatekeen galdetu diogunean ere ez du duda izpirik ere agertu. "Noski, baina lehenik lan segurua bat beharko nuke Elgoibarrera joateko", esan digu, zalantzarik gabe.

San Ferminak nola igaro dituen galdetzea ezinbestekoa zitzaigun. "Aragarriak, baina piska bat nekaturta", adierazi digu. Hala ere, ez zaio jaietarako gogoia guztiz aldendu, aurtan San Bartolomeetara etorriko dela agindu baitigu. Oporrak aprobetxatuko ditu horretarako eta gero, Eskandinabia aldera joateko asmoa omen du. "Baina hori ikusteko dago, lehenik herritik buelta bat eman behar dut" dio. Ea horrela den.



VIAJES **BILERO EXPRESS** 13111AIAK

**bidaia agentziak
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Bitxori Mugerza leiaristi (1913-1994)



- 1913ko irailaren 5ean jaio zen San Migel bailarako Garate baserrian. 6 anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Madalako moglekin egin zituen gaztetako ikasketak, 14 urtera arte. Garate baserria benetan handia zen eta lan asko zegoen bertan. Horrela, familiarri laguntzen hasi zen Bitxori. Nahiz eta emakumea izan baserriko lan nekosoetan jardun zen, soroan, garo batzen, belarretan, gari jotzen eta abarretan. Lsmgile ona eta trebea zen aipatutako lan hauetan.
- Sagasti asko zituzten eta sagarrekin ere etortzen zen herriko salmentara. Bezeroei esnea ere ekarri ohi zien. Garaten beti zegoen lana bertakoentzat. Sagardoa ere egin ohi zuten.
- Mariaren Kongregaziokoa zen eta lagun koadrilan joaten ziren San Mielgo erromerietara eta abarrera. Elizkizunetara parrokiara etortzen ziren.
- San Lorentzo bailarako Amesti baserriko Jose Ma Astigarragarekin ezkondu zen eta maiorazka lanetan hasi zen bertan. 6 sentalaba izan zituen: Jose Agustin, Pedro, Ma Luisa, Tomas, Eulogio eta Luis. Sui eta mainak berriz, Felix Arizaga, M" Eugenia Larrañaga eta Esperanza Santos.
- Bitxori, Garate familiako guztiek bezala, sinpatika eta sinesmenekoa zen. Gogor lan egin behar izan zuen senarrarekin batera familia aurrera ateratzeko. Ardi eta arkume kontutan ospetsuak dira gaur egun ere familiakoak.
- Bitxorik gogokoa zuen etxeko jira egitea, jostea, irakurtzea eta euskal kantak. Lagun arteko emakumea zen. 1994ko abuztuaren 5ean hil zen, 80 urterekin.

Juanito Gorostiza

**KAROBI
TABERNA**



Cordon, Vilarchao, c.b.

1 D E K C) R A Z I C) A

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIKAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



karkizano

San F rontzisko, 14 Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



A

Aste honetan Pedro Agirregomezkortak ekarri digu. i 943. urtekoa da eta Aitzbizkar baserriko atarian atera zuten. Hauek dira beretan agertzen direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara: Pedro Agirregomezkorta, Josefa Agirregomezkorta, Cesareo Andonegi (t), Petra Agirregomezkorta, Josefa Agirregomezkorta, Ricardo Rocha (t),

Salome Agirre, Sergio Nadal (t), Patxi Agirregomezkorta (t) eta Jose M" Agirregomezkorta.

Eserita: Ventura Agirregomezkorta, Josefa Romero(rt), Isabel Ibarluzea (t), Vitoriano Agirregomezkorta (t) eta Casto Agirregomezkorta).

Haurra berriz, Pili Rocha da.

JOSE /44/ça1
(rxema)

-Mota guztietako pintura eta enpapelatuak_ Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

ileapainclega


FADEK

L_ sola riuma

Abuztuaren 5era arte zabalik

Errosario, 35 beheha Tel: 943 74 26 92

"Afizionatuetan Luis Ocañaren tallean egoteko zortea izan nuen"



Felipe Calleja

- **Gustuko txirrindulari bat?** David Etxebarria.
- **Eta lehengoetatik?** Eddy Merckx eta Luis Ocarria. Gainera, afizionatuetan Ocañaren talde herean egon nintzen eta here ondoan hizikletan ibiltzeko zortea izan nuen.
- **Zein da mendaterik gogorrena?** Mont Ventoux eta Mont Faron.
- **Eta Euskal Herrian?** Bidania Gipuzkoan dagoen mendaterik gogorrenetarikoa da, baina Urkiola ere oso gogorra da.

-Zenbat urte daramatzazu txirrindularitzari lotuta? -1963. urtean hasi nintzen txirrindularitzan. Garai hartan 14 urte bestetik ez nituen, eta familiarekin Frantzia bizi nintzen, Tourmalet mendatearen ondoan. Aita eta anaia txirrinduzaleak ziren eta beraien bitartez hasi nintzen neu ere.

-Txirrindulari lasterketetan hartu al zenuen parte? -Bai, afizionatu mailaraino iritsi nintzen, baina bihotzeko osasun arazo batzuk medio, sendagileak txirrindularitza lagatzea gomendatu zidan, eta kasu egin nion.

-Egun ibiltzen al zara bizikletan? -Duela 5 urtetik hona, apenas. Pare bat bider ibili naiz, baina erabat lagata daukat.

-Txirrindularitzan hasi zinen garaitik asko aldatu al dira gauzak? -Bai, txirrindularitzaren mundua izugarri aldatu da. Bizikletak ikustea besterik ez dago, oraindik ere bi gupil dituzte, baina gure garaiko bizikletak burdinezkoak ziren eta 13 bat kiilo pisatzen zituzten. Gaur egun, teknologia asko aurreratu da eta oso bizi-Ideta arinak egiten dituzte. Bestalde, jantzien eta elikaduraren arloan atzerapenak nabarmenak izan dira. Lehen, kotoizko jantziak genituen. Deserosoak eta astunak izateaz gain, euria egiten zuenean pisu handia hartzen zuten. Bestalde, errepideen egoera ere asko hobetu da.


-Lagunak Txirrindulari Elkarte-ko presidente ere izan zara. Zenbat urtez? -Bai, pasa den urtean laga nuen kargua. Guztira 10 urte egin ditut presidente moduan.

-Beraz, Elgoibarko txirrindulariak gertutik ezagutuko dituzu. Zer moduzkoa txirrindulari harrobia? -Egia esan, gero eta txirrindulari gutxiago ditugu, baina joera hau orokorra da leku guztietan. Haurrek kirol asko dituzte aukeran. Kirol horietatik gutxi dira txinindularitza bezain sakrifikuak, ordea. Gainera, bizikletak garestiak izateaz gain, errepidean ibiltzea arriskutsua izan daiteke eta gurasoak lasaiago egoten dira semeek barruan jokatu beharreko kirolak aukeratzeko badituzte. Guk, ere 14 urtetik beherako gaztetxoekin errepidera ez ateratzea erabaki dugu.

-Arazo honek ba al du irtenbiderik? -Oraingoz poligonoetan edo trafikorik ez dagoen tokietan entrenatzen dugu gaztetxoekin. Auto kopurua asko hazi da eta enepidean ibiltzea oso aniskutsua izan daiteke askotan. Bide goniak irtenbide egokia izan daitezkeela iruditzen zait.

-Zergatik da horren zaila txirrindulariak irtetzea? -18 urtetik aurrera jarraitzea da zailena. Afizionatuetart sartzeko oso ona izan behar da. Afizionatu askok profesionalen moduan entrenatzen dute. Hortara bakarrik dedikatu behar dira eta hori gogorra da.

-Elgoibartik irten al da txirrindulari ezagunik? -Afizionatuetara iritsi diren batzuk daude. Agirrebeña eta Javier Artola primerako txirrindulariak izan ziren eta afizionatuetan maila ona erakutsi zuten. Bestalde, Aitor Osa, Baneastoko txirrindularia, Infantiletan zegoenean gurekin egon zen.



Sigmako frontoian hainbat prtridu jokatu dira azken bi Idiateetan4

Sigmako pilota txapelketako finalak asteartean, uztailaren 25ean, jokatuko dira

Egaña/Karmel eta Ansola/Agirrebeña arituko dira I. mailako finalean

Egaria/Karmel eta Ansola/Agirreberia bikoteen artean aterako da Sigmako pilota txapelketako irabazlea lehen mailan. Bigarren mailako txapelketari dagokionez, berriz, X. Loiola/Arrillaga eta Angel/Eneko bikoteak iritsi dira final handira. Partiduak uztailaren 25ean, asteanean, jokatuko

dira goizeko 11:00etatik aurrera. Lehen partidua alebin mailako pilotari gaztetxoek jokatuko dute. Txurruka eta Arriabalaga bikoteak Larrea eta Larrañaga bikotearen aurka neurtuko ditu indarrak. Partiduen ostean, partehartzaile eta antolatzaile guztiek luntxa egingo dute Sigmako frontoian bertan.

Deba-Mutriku igeri trabesia uztailearen 29an, larunhatean, izango da

Antolatzaileek 40-50 partehartzaile inguru izatea espero dute

Urgazi' Triatloi taldeak VI. Deba-Mutriku igeri trabesia antolatu du. Mutrikuko jaiak direla-eta uztailearen 29ra arte (larunbata) atzeratu dute proba. Lasterketa goizeko 10:00etan hasiko da Debatik, hondartza pareko erreka zatitik hain zuzen ere, eta Mutrikuko kaian bukatuko da 3 kilometro igerian egin ostean. Dena den, partehartzaileek 9:15ean azaldu beharko dute irteera gunera, markaketak eta inskripzioak egiteko. Trabesian parte hartu ahal izateko 16 urtetik gora izan behar dira, eta uretako txapela eta betautekoak norberak eraman beharko ditu. Urtetik urtera lasterketaren norabidea aldatzen da. Iaz adibidez, Mutrikutik Debara egin zuten igerian partehartzaileek. Bestalde, ai-



lazko igeri trabesian parte hartu zuten elgoibartarrak proba anzaitu ostean. Debako hondartzan ateratako argazkia.

pagarria da aurreko 5 edizioetan pertsona berak irabazi duela lasterketa Gorka Mttjika eibartarrak, alegia. Azkenik, antolatzaileek jakinarazi digutenez, bailara guztitik joandako 40-50 partehartzaile inguru izatea espero dute.

Bidaturisten irteera uztailearen 23an

Elgoibarko 'Lagun' Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 23an, izango da XXIX. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirindulariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Eibar, Areitio, Durango, Zornotza, Galdakao, Bilbo, Asua, Loiu, Unbe, Sopela, Barrika, Plentzia, Gorniz, Armintza, Bakio, Bermeo, Mundaka, Busturia, Gernika, Kortezubi, Laida, Ea, Ispaster, Lekeitio, Ondarru, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 206 km. dira. Ibilbide motza: Elgoibar, Eibar, Areitio, Berriz, Durango, Montealvo, Urrutxua, Mendata, Gernika, Kortezubi, Laida, Ea, Ispaster, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 115 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

ISanlor Eskubaloi Taldeko G jokalarik Alacanolu Nazioarteko Torineoan hartuko dute parte

Jubenil eta kadete mailako neska-mutilakl deitu ditu Euskadiko Selektzioak

Argazkian agertzen direnak 'Sanlo' Eskubaloi Taldeko jokalariek dira. Urte guztian zehar maila bikaina erakutsi dute, eta uda partean egindako lanaren fruituak jasotzen ari dira, izan ere, Euskadiko Eskubaloi Selektzioaren deia

jaso dute. Guztiek Torrellanoko (Alacante) Nazioarteko Eskubaloi Torneoa hartuko dute parte, bakoitzak bere mailan, uztailearen 22tik 25era bitartean. Honako hauek dira selektzioak konbokatutuen jokalariek:



KADETE MUTILAK

Aitor Azkue
Julen Ansola
Gorka Garate

JUBENIL NESKAK

Nere Aranberri
Itziar Gerrikabeitia

KADETE NESKAK

Ane Larrañaga

EMAITZAK

Esku pilota

Sigmako Txapelketa

Anget/Eneko 22 - Ulazia/Arizmendi 11
Elustonde/Guemez 7 - I.Txurruka/K.Arrizab.18

Finalerdiak

Loiola/Arrillaga 22 - Otariod Loiola 4
Angenneko 22 - Karra/Lander 14
Ansola/Agirrebeña 22 - Balzola/Esnaola 15
Egaña/Karmel 22 - Urtubia/Lazarobaster15

Futbol 7 txaplketa

Final laurdenak

C.S.K Awayer 9 - Ford Lerun 11
Faustino VII 10 - Astigarraga Kirolak 2
Celta Del Vino 1 - Antzarrak 4
Pastong Pila 6 - Palpadores 0

Finalerdiak

Faustino VII 0 - Pastong Pila 2
Ford Lerun 5 - Antzarrak 4

Antzerki

Esku pilota, Sigman

25, asteartea
Finalak
11:00 I.Txurruka/K.Arrizabalaga - H.Larrea/J.Larrañaga
11:30 X.Loiola/Arrillaga - Angel/Eneko
12:00 Egaña/Karmel - Ansola/Agirrebeña

XIV. Nazioarteko Folklore Jaialdia

Kuban errepublikako dantzari kosakoak arituko dira jaialdian Haritz taldekoekin batera

Bihar, larunbata, hilak 22, Nazioarteko Folklore Jaialdiaren XIV edizioa egingo da. Gaueko 22:30ean hasiko den ekitaldian Kuban Errepublikako dantzari kosakoak arituko dira Elgoibarko Haritz Dantzari Taldekoekin batera.



Eszenatokia lekuz aldatuko dute ikusleak erosoago egoteko

Saioaren hasieran Haritz Dantzari Taldekoak arituko dira, eta Jose Inazio Sarasua taldeko zuzendaria adierazi digunez, "aurten talde bakoitzak bi saio egingo ditu tartekatuz. Lehenengo saioan Haritz Dantzari Taldeak Otsagiko dantzak, Irradaka, nesken dantza eta mutilek, berriz, Zuberoako dantzak egingo dituzte. Bigarren zatian, Lapurdiko dantzak eskainiko ditugu. Iazko jaialdian ere dantzatu genituen, baina urtero berezuasunak sartzen saiatzen gara".

Aurtengo jaialdian izango da nobedaderik. Orain arte Haritzeko dantzariekin batera kanpoko bi talde ekarri ohi zituzten, baina aurtengoan talde bakarra izango da gure artean. "Konpainia profesionalak dira eta jendeari talde hauekin gozatzeko aukera eman nahi diogu, bestela talde bakoitzaren saioa labor gelditzen baita", esan digu Sarasuak.

Musika

Haritzeko kideei laguntzen Elgoibarko Dultzaineroak, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleak eta Udalaren Txistulari Banda arituko dira, Kosakoen taldean ere dantzaz gain musikak garrantzia dauka. "Gira honetan dantzak pisu handia badauka ere ikuskizunean abestu ere egiten dute".


Eszenatoki aldaketa

Jaialdia urtero bezala Kiroldegian egingo bada ere, aurtengo beste benikuntzetako bat eszenatokiaren kokapen aldaketa izango da. "Kiroldegiko gradetan horrelako jaialdi bat ikustea nekoso gerta daiteke. Beraz, eszenatokia lekuz aldatu eta aulkiak jarriko ditugu, ikusleek lasai eseri eta jaialdiaz gozatzeko".

Uda partean Haritz Dantzari Taldekoek atsedean hartuko dute eta San Bartolome jaietara bitartean ez dute beste emanaldirik eskainiko. "Jaso ditugu hainbat gonbidapen, baina batzuk uztaileko bigarren harnabostaldirako ziren

eta guk Nazioarteko Jaialdia izaten dugu egun horietan. Beste deiak, berriz, San Bartolome jaietako egunetarako izan dira".

Honela bada, dantza gogoko duzuenok bihar aukera ezin hobe daukazue dantza saio eder batekin ongi pasatzeko.



uztailak 28,
barixakua •

23:00etan
MORAUREN KONTZERTUA

ELGOIBARKO

SZarabaz orzahz

I KASLEA - 20 URTE



1 -Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea?

- Merezi dau. Eta Elgoibarren hizitziak baitxa ere.

2 -Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin?

- Oso gaizki baldin badao eta berak eskatzen badau, bai.

3 -Hil eta gero?

Zeozter dauala pentsatzen dot, baina zer ez dakitx.

4-Lehenengo ni eta gero besteak.

Ezetz esaten dou, baina bai, hola izaten da.

5 kontatzen dizkiozu arazoak?

- Segun eta zein arazo laguneri, edo bestela familixakueri.

6 -Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?

Anbiziva, pozik bizitzia eta dauzkaten ametsak eta helburuak lortzia. Biziva, berriz, tabakua.

7 -Sinesten al duzu politikan? Eman al zenuen botorik?

- Ez dot sinisten, eta azken hauteskundietan argi ez nakanez ez naban botorik eman.

8 -Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera?

- Aspaldi, insitutuan nabilela, insumistuan aldeko batera.

9 -Euskalduna naiz eta harro nago?

Bai, baina mundukua izatiaz ere harro **nao**.

10 -Zerk galerazten dizu loa?

- Arazo batek, azterketek batzutan, baina ondo eitxen dot lo.

11 -Joaten al zara Gaztetxera?

- Bai, ez gera handik urtetzen, oso ondo dao.

12 -Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?

- Ez, ez diet arazo haundirik ematen.

13 -Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

- Gehixen ematen diaten askatasuna eta beti aldamenian dauzkata. Gutxien, berriz, batzutan "txapa" samarrak direla.

14 -Laguntzen al duzu etxeko-lanetan?

Bai. Ohia egunero eitxen dot, eta gero batzutan fre-gaua, aspiradoria pasau, danetik piskat.

15 -Ondo pasa al daiteke alkoholik gabe?

Bai, ondo pasau leike. Baina gutxi dia juerga bat botatzen dabenak ezer ere edan gabe.

16 -Irakurri duzun azken liburua?

- Oin dala hiru aste bukatu naban "Las eenizas de Angela".

17 -Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?

- Bat aukeratzekotan maitasuna sexurik gabe.

18 -Birjinitatea traba ala bertutea?

- Ez bata eta ez bestia. Momentua ailegatzan danian pasatzen da eta kitto. Baina ziur egon bihar dala uste dot.

19 -Homosexual batek maite zaituela esango balizu?

Hasieran flipauta geratuko nintzake, eta gero esango nioke maitasuna emango diotela, baina la-gun bezela

20 -Sinesten al duzu betiko maitasunean?

Maitasuna azkenian kariño bihurtzen da, zaila da hasiera-kua mantentzia.



%50


Sara



J ANTZIDENDA

Errosario, 14 • Tel. 943 74 35 55

ASTEAZKENA, UZTAILAREN 26tik AURRERAREN
DENA **ERDI PREZIOAN**



23 igandea

18:45 GELATXOrekin
DANTZALDIA
Plaza Handian

24 astelehena

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
"Ione, igo zerura"
(Euskaraz)

25 asteartea

SARGOATEko ERROMERIA
11:30 Meza
Ondoren,
salda eta txorizo jana.
12:30 BERTSOLARIAK
eta TRIKITILARIAK
Antolatzaileak:
Elgoibarko Izarra,
Morkaiko M.E.,
Debenten, Sallobenteko
jai batzordea eta Udala.

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
"Tarztln"

28 ostirala

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
28 dias"

23:00 KONTZERTUA
'Morau'
Toletxe tabernan

2 larunbata

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
"Stuart Little"

30 igandea

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
"La Playa"

aste ehena

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
"Campo de batalla: La
Tierra"

21 ostirala

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
"Toy Story

22 larunbata

22:30 ELGOIBARKo
NAZIOARTEKO XIV.
FOLKLORE JAIALDIA
Kuban errepublikako
kosakoak eta Haritz Euskal
Dantzari Taldea
Olaizaga Kiroldeszian
Antolatzailea: Haritz
Euskal Dantzari Taldea

Elgoibarko Izarra .	943 741626
Kiroldegia	943 744415
Kontsumo Bulegoa	943 743088
Liburutegia	943 743525
Musika Eskola	943 742145
Mintxeta	943 744315
Parrokia	943 740842
Postetxea	943 741547
Gaztetxea	943 743572

Haur Eskola .	943 74 21 41
HHI (EPA) .	943 74 08 80
Herri Eskola .	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)..	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastelma,	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco .	943 74 40 73
El Correo Español..	943 74 10 82
Zazpiki irratia .	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

11 NE A



Zuzendaria: Joseba Salegi.
Antzezleak: Kike Diaz De Rada,
Martxelo Rubio, Anabel Arraiza.

lone,igozerura"

Joseba Salegi zuzendari nafarraren "Jone, igo zerura" pelikulak zinema zuzendari bati moja ordena batek egiten dion lan enkargua du oinarritzat. Filmeak mojen eta aktoreen arteko harremanak jasotzen ditu alde batetik, eta bestetik, zinema barruko hika-mika eta egunerokoak. Kike Diaz de Rada, Anabel Arraiza, Klara Badiola, Martxelo Rubio, Mario Pardo eta Iñake Irastorza aktore koadrila dira protagonista nagusiak.

SALLOBENTEKO JAIK

ABUZTUAK 9, asteazkena

18:00 Kanpai jotzea eta txapligoak.
18:30 Errosarioa eta meza auzoan hildako-
en alde.
22:30 Bolo saioak eta erromeria Txillarre-
re eta Pablorkin.

ABUZTUAK 10, osteguna
SALLOBENTE EGUNA

11:00 Meza Nagusia.
Ondoren, aureskua
13:00 Pilota partiduak
22:30 Bolo saioak eta erromeria Gel atxore-
kin

ABUZTUAK 11, ostiraila

17:00 Haurrentzako jolasak eta zezenak.
19:00 Txokolatada haurrentzat eta zain-
tzaiteentzat.
19:30 Emakumeentzako boto saioa.
22:30 Erromeria Baltzola anaiekin.
Ondoren, bolo saioak

ABUZTUAK 12, larunbata

16:00 Plater puskaketa herrikoia.
22:00 Bolo saioak.
22:30 Gaupasa Kiñu taldearekin
24:00 Bolo Txapelketa.

ABUZTUAK 13, igandea

11:00 Meza
Ondoren, salda eta txorizoa.
Jarraian, bertsolariak: Mantxi eta Nahika-
ri Gabilondo.
12:30 Zaldi lasterketa
14:30 Lagunarteko bazkaria.
18:00 Herri kirolak, Saralegi anaiekin.
Ondoren, zezenak
22:30 Bolo saioak.
23:00 Erromeria Gardokirekin

SAN ROKEKO JAIK

ABUZTUAK 15, asteartea

17:00 Kanpai jotzea eta txupinuoak.
20:00 EtTosano Santua.
20:30 Afaria Jose Lizaso eta Imanol Lazkano
bertsolariekin.

ABUZTUAK 16, asteazkena
SAN ROKE EGUNA

8:00 Txapligoak eta txupinazoa.
11:00 Meza Nagusia
Jarraian, Haritz taldearen dantza saioa.
Berehala, herri kirol saioa Faustoren semea-
rekin eta Mintxetako Arkaitzekin.
17:00 Umeen jolasak.
Ondoren, zezentxoak eta zalditxoak.
23:00 Erromeria Jon Ostolazarekin.
1:00 Bolo saioak
1.saria: 14.000 pta.
2.saria: 7.000 pta.
3. saria: 5.000 pta.

ABUZTUAK 17, osteguna
SAN ROKE TXIKI EGUNA

8:00 Txapligoak eta txupinazoa
11:00 Bailarako hildakoen aldeko meza.
Jarraian, Mountain Bike VI. Sari Nagusia
Lsaria: 6.000 pta.
2.saria: 4.000 pta.
3. saria: 3.000 pta.
(Auzoko lehenengoarentzako: 5.000 pta.)
14:00 Anaiarteko bazkaria.
18:00 Heni kirol saioa. Aizkalariak: Fausto
eta Mindegia. Harrijasotzaileak: Javier Eugi
eta Goenatxo.
Jarraian, zezentxoak eta mlditxoak.
22:00 Erromeria Jose Gardokirekin eta bolo
saioak goizalderarte.
1:00 Janariz eta edariz betetako karretilaren
zozketa.

TXANDAK

FARMAZIAK

Egunez Gaez

22 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

23 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

24 Fernandez Fernandez

25 Eimberria Etxeberria
(Errosario kalean)

26 Bidasolo Bidasolo

27 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

28 Zabaleta Zabaleta

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38

J. IGNACIO FERNANDEZ

Herriko enparantza 4,
Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soratuze, Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

23 igandea Eizagirre

25 asteartea Folero

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Louis Morneau.
Antzezleak: Dina Meyer, Lou Dia-
mond Phillips, Leon.

"Murclelagos"

Birus arraro baten eraginez Texasko (Es-
tatu Batuak) saguzaharrek adimena izu-
garri garatu dute. Argiakoak izateaz
gain, odolgosea ere handiagoa dute.
Gaua hurbiltzean hiri lasai bateko bizila-
gunak lo daude arriskuaren berri jakin
gabe. Mehatxuari aurre egin diezaioke-
ten bakarrak zoologian aditua den ira-
kasle bat eta hiriko sheriffa dira. Lortu-
ko ote dute mehatxua baretzea?

111 111 • ERIZ 111 • • 11 • • •

• • • al IN IR • • RI 111 I • • •

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Lana

• ESKAINTZA •

• Perisone arduratsua behar da irailetik aurrera goizeko ordu batzuetan bi ume zaintzeko. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. tr 943 74 05 14/ 943 74 15 16

♦ Abuztuaren 9tik intilaren 9ra hartean lan egiteko ileapaintzailea behar da Debako Jubilatuen Eticean. tr 943 19 29 32

• Pertsona nagusi batekin bizitzeko norbait behar da. Eticean arratsaldeko 6etatik goizeko 10etara egoten da. zr 943 74 06 96.

♦ Neska euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Yolanda (dendako orduetan deitu). a 943 70 08 18

*Bi mutil gazte behar dira jaietan barran lan egitekoir 943 74 16 00

• ESKAERA •

♦ Propaganda buzoneatzeko prest gauden bi neska gara, Ts 943 74 46 27/ 943 74 12 21

• Neska eskaintzen da uztailean arratsaldetan lan egiteko. 47 943 74 06 75. Amparo (Arratsaldez)

• Neska euskalduna eskaintzen da partikularrak emateko, matematika etab. s 943 74 11 34

• Neska eskaintzen da uztailean edozein postutan lan egiteko. tr 943 74 33 42

Partikularrak

• Uztailean matematikako klase partikularrak hartuko nituzke Elgolbarren. Ahal bada, goizez eta euskaraz, ir 943 74 25 17

Garajeak

♦ Ikastola ondoan garaje hat clattkat alokatzeko. n• 943 74 28 24

Salerosketak

• Azkoitiko Olan baserrian txakurkumeak salgai. Pastor esocoes eollie arrazakoak. tr 943 85 16 72

*Estudioko tnahai bat salgai. Lau kajoji ditu eta luzatu daiteke. Berria. rt 953 74 01 77

*Merkatu Plazan lokala traspasatuko nuke. Kondizio onean. n.943 74 25 17

• Bi bizikleta ditut salgai. Bata mendikoa eta bestea, karreterakoa. Oso prezio onean. (19:00etik- 22:00etara). 13 943 75 51 47 (Jokin),

• Agirre taberna alokatzen da. P.M. Urruzuno kaleko nan. 11 943 74 45 05

• Wolswagen autoa salgai. 4 urte ditu eta kanpinera joateko egokituta dago. zr 943 20 04 17

• Seat 600 bat erosiko nuke, Ez zait inporta zein egoeratan dagoen. rt 610 54 71 16 (Enrique)

Etxehizitzak

• Pisua alokatuko nuke Elgoibarren hurrengo ikasturterako. zr 943 88 90 67. Aitor

• Pisua hartuko nuke alokairuan datorren ikasturterako. Ti 943 74 07 85 / 656 72 12 22

*Herri erdian pisua salgai. 4. solairua da eta ez du igogailurik. ir 943 74 02 69

Bestelakoak

• Larunbat iluntzean. hilak 15, perikito bat agertu zen Santa Ana kaleko etxebizitza batean. Jaheak dei dezala 953 74 15 00 telefonora. (20:00etatik aurrera).

*Netto inguruan urre koloreko erlojua galdu dut. Aurkitu duenak UclaItzaingura eraman dezala.

*Trenean errosario batzuk aurkitu ditut (zom) batean sartuta. Tr 943 74 02 68

Agurrak

• Zorionak ama! Ondo pasatu lan zenuen zure eguna? Muxu handi bat Borja, Ignacio eta aitaren partez.

Zorionak Iñigo. hilaren 12an urteak bete zenituelako. Borja eta Ignaciorioren partez.

• Zorionak Ander Polori, hilaren 18an 12 urte bete zituelako. Familia osoaren partez eta bereziki, ahizpa Loinazen partez.

*Zorionak amatxo, gaur, hilak 21. zure urtebetetze eguna delako. Zure seme-alaben eta senarraren partez. Ondo pasa eguna!!



• Sorpresa!! 30ean egun zoriontsu eta alai pasa dezagun guztiok zuen ezkontzaren partez. Zorionak. Familiaren partez.

• Zorionak Igortxo. Ondo ospatu zure eguna eta ea zenbat erregalo dituzun uztailearen 22an beteko duzun 3. urte-txoan. Gurasoen eta bereziki Juren partez.




• Zorionak Sara, abuztuaren 9an 5 urte betetzen dituzulako. Familiaren partez muxu handi bat.

• Zorionak Ibona. uztailearen 29an 5 urte beteko dituelako, Anaia Jonen eta Familiaren partez.



• Zorionak Aintzane, gaur 7 urte bete dituzulako. Familiaren eta hereziki. Leireren partez.


• Zorionak Garaziri. hilaren 28an 9 urte hetroko dituetako. Familiaren eta bereziki. zure anaia Befiaten partez.



*Zorionak Aitor Urain aita-semeei. uztailearen 24an eta 27an urteak beteko dituztelako. Amaren eta Asierren partez.




♦ Zorionak Andrea Berazari, hilaren 23an urtea bete duelako. Familiaren partez muxu handi bat.




♦ Aupa Aitor!! Bai urte polita izan dela aurtengo. ezta? Ea gaurko eguna ere ondo-ondo pasatzen duzun! Zorionak etxekoan, eta Unairen partez.



lon. irati



• Zorionak Beñat Arriolari. uztailearen 27an 7 urte beteko dituelako. Gura.so eta bereziki, bere anaia Jokinen partez.



• Zorionak Iraili, hilaren 21ean 12 urte beteko dituzulako. Aitxitxamama, tia Arantxa eta tia Mariaren partez.



• Izaro? Benetan? Igandean zenbat ospatuko ditugu? Bi dozenatxo!! Zorionak eta milioi hat muxu.

I. Azoka Ekologikoa

Azoka bat baino ehiago
LASTUR

UZZTI

Egun guztian zehar



Tailerrak...

ARTILE TAILERA
TALOGINTZA TAILERA



Azoka...

AZOKA EKOLOGIKOA:

Barazkiak • Fruta
Barazki kontserbak
Ogia • Gazta - Eztia
Ardoa • Sagardoa
Olioa • Esnea • Haragia
Mermelada eta gozoak
Ontziraturako elikagaiak



• 11.4:kle o

Sagardo museoko erakusketa
Tolarea eta muztioa
Ikatza egiteko txondorra
Errotak martxan arto irina egiten
Eliza, Presaolako frontoia eta bolatokia

Pintxo eta Zumo Ekologikoak

Lasturko Artisautza:

keramika, tailak, artilea...

Lasturko Produktuak:

babarrunak, mermeladak, eztia,
sagarrak, sendabelarrak,
sagardoa, gazta...

Sagar Muztioa

eta A_rtea.

Artile langintza eta tintaketa naturala
Egur taila

+ Laborak



BioWZ

gipuzkoa

111091fti

gre•
milmo



kfizarlz

LAGUNTAILEAK

EIKO Nekazaritza Ekolosikoaren
Euskadiko Federazioa
EZMEEZ 11.1111111..k.



Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkartea

DEBAKO ChtbALA EUSKOJAURLARITZA GPUZKOAKO
FCRU ALDUNDIA

DIOME

XAK

abuztua

23, asteazkena

SAN BARTOLOME BEZPERA

Eguerdiko 13:00etan.- Txupinazoa eta kanpai hotsa

1aT-41 1+ . " 1 , - 19 , 9

SAN BARTOLOME EGUNA

Gaueko 23:00etan.- Su artifizialak IMHko aparkalekutik

TX1K1 EGUNA

Goizeko 8:00etan.- Sokamuturra

Arratsaldeko 17:30etan.- Trialsin Erakustaldia

112:01VT911111111111.11

BASERRITARREN EGUNA

27, igandea

JUBILATUEN eta UMEEN EGUNA

Goizeko 8:00etan.- Sokamuturra

Gaueko 23:00etan.- Su artifizialak IMH aparkalekutik



iraila

2, larunbata

GAZTEEN EGUNA

Goizeko 9:00etan.- Sokamuturra

Arratsaldeko 17:30etik gaueko 21:00etara

Gazteentzako parke izugarria Plaza Txikian

Gaueko 21:00etan.- 'Reincidentes' taldearen kontzertua
Foruen Plazan. Teloneroa: 'Lin Ton Taun' taldea



Kultura Saila